



## KANALAK:

### KOMUNIKAZIOA ETA SUSTAPENA

**KOMUNIKAZIOA:** Telefono zenbakia eskainiko dugu gure bezero guztientzat eta webgunean zalantzak ebazteko chat bat antolatuko dugu. Telefonoa goizeko zazpietatik gaueko hamarretara egongo da erabilgarri. Gainera, telefono zenbakira whatsappak bidali ahal izango dira eskariak egiteko eta zalantzak ebazteko.



**SARE SOZIALAK ETA MARKETING DIGITALA:** Instagram, Facebook eta Twitter bezalako plataformak aktiboki erabiliko ditugu. Hemen gure kafearen buruzko eduki erregularra partekatuko dugu, hala nola kultur tematika desberdinak, ekitaldi bereziak eta promozioak. Horrek gazte publikoarekin konektatzen lagunduko digu eta gure bezeroak informatu eta konprometituak mantenduko ditu.

**WEBGUNEA ETA BLOGA:** Webgune erakargarri bat garatuko dugu, non bezeroek kafetegiaren informazioa, menua eta erreserbak erraz aurkitu ditzateken. Gainera blog batek kultur desberdinei buruzko istorio interesgarriak partekatzeko balio izango du.

### ZERBITZU BANAKETA

**TOKIKO BANAKETA ETA DENDAN JASO:** Gure inguruko bezeroentzat etxez etxeko banaketa zerbitzua eskainiko dugu, baita gure webgunean edo telefonoz egindako eskaerak dendan jasotzeko aukera ere. Honek gure kafea etxean edo bulegoan gozatu nahi duten bezeroei iritsi ahal izango die.

**PUNTU TXARTELAK:** Fidelizazio programa bat jarriko dugu martxan, zigiluen txartela bezalakoa, non bezeroak doako edari bat lortu ahal izango dute, erosketa kopuru jakin bat egin ondoren.